

YOARE

Mikel Etxeberria *Loyarte*

13 urte. Errota baserria. Goizueta. NAFARROA.

Elkarrizketa egin dio.

Jose Antonio Apezetxea. 32 urte. GOIZUETA.

Xarelan :

67

94.95 Dialektikoko 1. liburua
 eskal. b. k. t. e. m. e.
 b. n. o. t. a. b. a. s. e. r. u. e. - b. o. z. u. e. t. a

184

ELKARRIZKETA

Joxe-Anton, 32 urte, Goizuetarra eta ioaregilea

Ni Joxenton Apezetxea naiz, oitamabi urte ttut eta Goizuetarra naiz, ta oain yoareak nola itten dian kontatuko dizuet.

Ba, gutxigorabera amairu urtekin asi nitzan. Asi nitzan attari ta osabari launtzen. Ta yoarea itten da, lenbizina erosten dia 2m ta 1m zabaleko txapa. Gero segun ze klase den ba plantilla batzuk ya iñak battut preparatuk ta aiekin geo erositako hortan markatu ta ebaki gero hasitzen da biltzen hortako ttu txingude berexi batzuk bakotxa bere klasentzako ta ola ta haitan biltzen dia. Billu berriz dena itten da mailukin. Behin billu ta gero ia pasatzen da ia laben erretzera.

Buztina menditik kartzen du gero harri koxkorak ta kendu itten ttu sare baten ta gero nasten du belarrakin ta gero ia hasitzen ga ioaren bueltan biltzen. Ioareri hortako itten tzio barrenen latoia sartu neurtua gutxigorabera borrazakin ta, eta buztinakin buelta guzin tapatu. Gero ioarea buztinakin tapatua donen laben sartzen du ta euki behar da e buelta guzin gorri-gorri yarri arte.

Bein gorri gorria yartzen denen atetzen du ta bueltaka ibiltzen du barrengo latoia denen nasteko eta gero ia zetu ee... oztutzen utzi eta bein neurri baten oztutzen denen uren sartu. Ta ya bein uretik atere, autsi buztiña ta yoarea atetzen da ya bañua emanakin. Gero yoarea itten du garbittu, gañeko zikiñak eta kendu pulidoran do ola ta gero ya yoten ga soñua patzera. Ta soñua patzera. Ta ya soñua patzen dunen itten du ya mingañak eta ya saltzeko prest do ya.

Yoarek ee... segun ze forma dun ba... deittu dittezke kalaskak, koadratu antxeko batzuk dia... ta zintzerrik e bai ia ttikiok badia e... errege yoarek oiek dia lau bost bat zentimetroko yoare borobilak ta gero dunbak e bai.

Dibujok berriz itten zite uaindikan yoarea billu miño leno dola, ordun itten zite dibujoa.

YOARE